



KREDITU AZKARRAK



Zer dira?

- ✓ Kreditu azkarra edo mikrokreditua kontsumorako kreditu edo mailegu pertsonal mota bat da, **zenbateko txikiekin** ematen dena. Horren ezaugarri nagusia da lortzeko beharrezkoak diren **izapideak eta gestioak** ahalik eta gehien **murrizten** direla.
- ✓ Kasu askotan, horiek eskaintzen dituzten enpresak **ez daude Espainiako Bankuaren kontrolpean**. Hori dela eta, gatazkaren bat sortuz gero, ezin izango duzu erreklamatu erakunde gainbegiratzaile honetan.
- ✓ **Itzultzeko epea** oso **laburra** izan ohi da, eta **interesa** oso **handia**. Gainera, hirukoiztu ere egin daiteke ez bada ordaintzen edo ordainketa atzeratzen bada.
- ✓ Kreditu hori eskatzen dutenak **egoera ekonomiko larrian** egon ohi dira, edo gainzorpetuta daude. Mailegu mota horretan **aukera ona** ikusten dute hilabetea amaitzeko, beren soldatarekin erosi ezin duten estraren bat eskuratzeko edota zorrak ordaintzeko.

! Erraz lor daitezke eta arriskutsuak dira. **BAZERTU** horiek kontratatzea, salbu eta beste finantzaketa biderik lortzen ez baduzu.

Kreditu azkar bat eskatzeko asmoa baduzu:



PLANIFIKATU zure egoera ekonomikoa kreditu horiek ez ordaintzea **saihesteko** edo gainzorpetzean ez erortzeko.



KONPARA itzazu aukera ezberdinak, **egokiena aukeratu ahal izateko**.



IRAKURRI kontratuaren baldintzak eta **ez sinatu ondo ulertzen ez duzun ezer**.



KONPROBA itzazu ez ordaintzearen kasuan **exijitzen dizkizuten bermeak**, baita kobratuko dizkizuten **kostuak eta gastuak** ere.



INTERESAK. Kontratu guztiek Urteko Tasa Baliokidea(UTB) modu argian zehaztu behar dute. **Erreparatu ongi** aplikatuko dizuten **UTBren ehunekoari** eta beste kreditu batzuekin alderatu.



ZUHURTASUNA. Eska ezazu **itzuli dezakezun** bakarrik, eta nahitaez egin behar dituzun gastu urgenteak estaltzeko, inoiz ez **behar-beharrezkoak ez diren** gastu puntaletarako, ezta ohiko finantzaketa modu gisa ere.



IRUZURRAK. **Kontuz** ibili, mota horretako kredituak behar dituzten pertsoneri iruzur egiten saiatzen diren erakundeak ere daudelako: aldeztatik ordainketak egiteko eskatzen dute, berankorren zerrendetatik aterako zaituztela promesten dizute, gezurrezko enpresak dira, eta abar.



INFORMA ZAITEZ kontratatu **aurretik eta ondoren**.

